



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urriaren 23a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da egin behar diren ekintzak egin ditzan, Iruñeko aireportuko hegaldi eta ibilbide kopurua areagotzea lortzeko. Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrailari aurre egiteko plan bat urgentziaz taxutu dezan. Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak premiatzen dira azkartasunez, efizientziaz eta eraginkortasunez jardun dezaten, emakumeen aurka etengabe areagotzen ari den indarkeriari aurre egiteko. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Tasa Judizialei buruzko azaroaren 20ko 10/2012 Legeko manuak indargabetu ditzan. Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie giza eskubide guztiekiko errespetuz elkartasun internazionalista garatzen duten erakunde eta pertsona guztiei. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, Trans Despatologizazioaren aldeko Ekintzaren Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Tuteran kokatutako Osborneren zezenaren aurkako sabotajea dela-eta Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak autobideen eta autobien doakotasunaren gaineko irizpidea bateratzearen gainean daukan jarrerari buruzkoa. Luis Casado Oliver jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Bideberri Kolektiboko kide batzuek Mendillorriko Jauregia aldarrikapen baterako okupatu izanari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (11. or.).

- Galdera, zerbitzuak euskaraz ematea eskatzen duten herritarren eskariei buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, programa-akordioan ezgaitasuna dela-eta hartutako konpromisoak betetzeari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberan giza, industria- nahiz urezta eta hornidurarako ur-beharrizanak bermatzea dela-eta Gobernuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko organigramako parekidetasunari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (14. or.).
- Galdera, zerga-igoerak enpresen eta nafar zergadunen deslokalizazioan izan dezakeen eragina ezagutze aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan aurreikuspenei eta azterlanei buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (15. or.).
- Galdera, jakiteko noizko aurreikusten den Tuterara eta Nafarroako Erriberara heltzea Itoizko urtegiko edateko ura. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Tafallako “Sancho III el Mayor” Bigarren Hezkuntzako Institutuko DBHko zenbait taldetan matematikako irakaslerik ez edukitzeko arrazoiei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Alkerdiko kobazuloari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak ezartzearen ondoriozko irakasle-lanpostuak eskuratzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, beste autonomia erkidegoekin alderatuta Nafarroan 2016rako ezarriko diren zerga-tasei buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Iruñeko San Frantzisko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko patioari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- “Nafarroan enpleguaren egoera aztertu eta hura sustatzea eta sortzea” gaiari buruzko eztabaida antolatzeko arauak (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoa erabiltzeko arauak (21.or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin behar diren ekintzak egin ditzan, Iruñeko aireportuko hegaldi eta ibilbide kopurua areagotzea lortzeko.

ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin behar diren ekintzak egin ditzan, Iruñeko aireportuko hegaldi eta ibilbide kopurua areagotzea lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2010ean zehar, Iruñeko aireportuak hobekuntza nabarmena izan zuen bidaiarientzako arreta eta nabigazio arloko ekipamenduei dagokienez. Hobekuntza horien artean sartzen dira aireportuko pista bakarra egokitzea hegazkin handiagoak lurreratu eta aireratu ahal izan daitezen. Esate baterako, Airbus 320 edo Boeing 737 hegazkinak; alegia, hegaldi erregularreko nahiz kostu txikiko konpainiek Europan distantzia ertaineko hegaldiak egiteko gehien erabiltzen dituztenak.

2007an urte bateko bidaiari-kopururik handiena lortu zenetik –AENAK emandako informazioaren arabera, milioi erdi bidaiari baino gehiago egon ziren–, instalazio horren erabiltzaile-kopurua jaitsiz joan da, 2014an 138.316koa izateraino, eta 2010ean egindako aurrerapenak ez dute ezertarako ere balio izan joera hori geldiarazteko.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin behar diren ekintzak egin ditzan, Iruñeko aireportuko hegaldi eta ibilbide kopurua areagotzea lortzeko. Horretarako, bilerak eginen ditu aire-nabigazioko enpreekin eta Nafarroako gizartean horrekin zerikusiren bat daukaten eragile nagusiekin.

Iruñean, 2015eko urriaren 9an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrailari aurre egiteko plan bat urgentziaz taxutu dezan.

ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrailari aurre egiteko plan bat urgentziaz taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzera, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrailari aurre egiteko plan bat urgentziaz taxutu dezan.

Gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrailak neurtzen du emakumeek eta gizonen lan-merkatuan jasotzen dituzten batez besteko diru-sarrien arteko portzentajezko diferentzia, eta orduko, eguneko, asteko, hilabeteko nahiz urteko diru-sarreraren arteko diferentziari buruzkoa izan daiteke.

Espanian, argitaratutako azken txostenen arabera, soldata-arraila % 23,93koa zen 2012an. Zerbateko oso esanguratsua da, agerian jartzen duena lan handia egin beharra dagoela, hainbat esparrutatik egindako araugintza-ahaleginak gorabehera.

Nafarroan, soldata-arraila ia % 30ekoa da egun, halako moduan non gure erkidegoak urte urte buru egiten baitu soldaten arteko alde handiena duten Espainiako erkidegoen artean.

Emakumeek eta gizonen soldata berdina jasotzeko eta ordainsari-diskriminaziorik ez pairatzeko

eskubidea berariaz dago jasota Espainiako Konstituzioan (35. artikulua), martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan (5. artikulua) eta Langileen Estatutuan, zeinaren 28. artikulua honako hau xedatzen baitu: “Balio bera duen lanagatik ordainsari bera ordaindu behar du enpresaburuak, zuzenean edo zeharka ordaintzen duela ere, eta soldata bidez edo bestelako bideren baten bidez ordaintzen duela ere, eta horretan ezin izan da sexua dela-eta inolako bereizkeriarik egin soldataren osagaietako edo baldintzetako batean ere”.

Europar ere oinarriko eskubide eta printzipio gisa jasota dago; halatan, berariaz dago jasota Europar Batasunaren Funtzionamenduaren Ituneko 157. artikuluan (lehenagoko EEIko 141garrena), Europako zuzentarauetan (75/117/EEE Zuzentaraua, Kontseiluaren 79/7/EEE Zuzentaraua, 89/613/EEE Zuzentaraua, 92/85/EEE Zuzentaraua, 2002/73/EE Zuzentaraua, 2006/54/EE Zuzentaraua) eta Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutuneko 23. artikuluan. Azpimarratzekoa da Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ordainsari-berdintasunaren kontzeptuari dagokionez egindako interpretazio-lana.

Nazioartean, LANE-Lanaren Nazioarteko Erakundearen 100. Hitzarmenak, balio bereko lan batengatik ordainsari bera jasotzearen printzipioa aplikatzea sustatzeko eta bermatzeko xedez, estatuak hertsatzen ditu bermatzera balio bereko lan batengatik ordainsari bera jasotzearen printzipioa aplikatzen dela.

Desberdinkeria hori lan merkatu patriarkal batek heldu da, non segregazio horizontal bat gertatzen baita –zenbait lanbide maskulinotu edo emakumetu egin dira, tradizioz– eta segregazio bertikal bat –eskala hierarkikoan banaketa desorekatu bat ematen da gizon eta emakumeen artean–.

Azken urteotan areagotu egin da soldata-arraila. Gobernu zentralak lan erreforma abian jarri izanari zor zaio nagusiki areagotze hori; izan ere, erreforma horrek ondore kaltegarria dakar lan baldintzetan, bereziki lanaldi partzialekoetan, eta bidea ematen du enpresek lan hitzarmen kolektiboak eta horietan jasotako berdintasun-klausulak aplikatu behar izan ez ditzaten.

Soldata-arrailaren ondorio larri bat da emakumeak gizarte-babes prekario batera kondenatzen dituela.

Nafarroako emakumeen kolektiboak ez du gizonen baldintza beretan eskuratzen enplegua, eta ez dauka lan-baldintza berberak, enplegu partzialaren % 80ko okupazioarekin eta soldata % 30 txikiagoarekin; ondorioz, gizonena baino % 42 txikiagoa da emakumeen batez besteko pentsioa.

Horregatik guztiagatik, sozialisten parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du gizonen eta emakumeen berdintasunerako plan bat urgentziaz taxutu dezan, soldata-arraila % 0koa izateko neurriak ezarri dituena. Neurri horien artean sartuko dira emakumeen enplegarritasuna hobetzeko neurriak eta enpresetan nahiz administrazioan berdintasuna bermatzeko programak.

Hartzen diren neurriek egiazki eta eraginkortasunez bermatu beharko dute berdintasuna, hala etxeko lanen eta zainketen banaketa sozialari dago-

kionez nola balio bereko lan batengatik ordaintzen den soldatari dagokionez; hortaz, bermatu egingen da genero berdintasuna enplegu bat lortzeari eta mantentzeari dagokienez eta enpresetako prestakuntzari eta barne sustapenari dagokienez, berdintasuna eragozten edo zailtzen duten oztopoak kenduta.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du lan erreforma berehala indargabetu dezan, 2012an egindako erreformatatik hasita lan erreforma gizon eta emakumeen berdintasunerako izaten ari den inpaktu negatiboarengatik besteak beste; horren froga da emakumeen jarduera-tasa jaitsi izana eta bi generoen artean dagoen soldata-arraila; izan ere, emakumeen kontratuak prekarioagoak eta motzagoak dira, betetzen dituzten lanpostuak ez datoz bat haien kualifikazioarekin, eta gutxiago kobratzen dute beti.

Iruñean, 2015eko urriaren 15ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen dira azkartasunez, efizientziaz eta eraginkortasunez jardun dezaten, emakumeen aurka etengabe areagotzen ari den indarkeriari aurre egiteko.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen baitira azkartasunez, efizientziaz eta eraginkortasunez jardun dezaten, emakumeen aurka etengabe areagotzen ari den indarkeriari aurre egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakume eta haurren hilketa basatien areagotze ankerkeriazko bat bizitzen ari gara. 2015 honetan jada 65 hildako dira. Uztailean, 16 emakume hil zituzten Espainian gizonen, eta abuztuan beste 6 emakume gehiagokoa izan zen kopuru hori. Zenbateko dramatiko horiei 6 haur-feminizidio gehitu behar zaizkie.

Emakume eta adingabe horiek guztiak ez dira genero indarkeria dela-eta hildako pertsonen zenbaki hotzak; biktima horietako bakoitza biktima da sakondu eta borrokatu behar diren arrazoiengatik, muturreko indarkeria patriarkal hau errotik abolitu nahi bada.

Badakigu berdintasunik eza eta neurri prebentiborik eza indarkeria matxistarekiko zuzenenean proportzionalak direla. Ahotsa goratu beharra dago, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat exijitzeko, berdintasunik eza gero eta handiagoa duen gizarte honek bere-berezkoa delako indarkeria. Gure ustez, gainera, indarkeria da zerbitzu publikoak murriztea, emakumeak lan merkatutik bota eta behin-behinekotasunera eta prekarrietatera herrestan eramatea, ugalketa-osasuna murriztea, genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako abegi-etxeen kopurua murriztea; indarkeria da baterako hezkuntzari eta berdintasunean hezteari ez erantzutea, tasa judizialak igotzea; indarkeria da hizkuntza sexista, emakumea laidotzen duen publizitatea; indarkeria da, bere adierazpiderik gorenean, indarrezko erailketa.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernu eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu azkartasunez, efizientziaz eta eraginkortasunez

jardun dezaten, emakumeen aurka etengabe areagotzen ari den indarkeriari aurre egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuak dei egiten dio gizarte osoari parte har dezan emakumeen eta beraien seme-alaben bizitzan defentsan kaleetan egindako ekitaldietan, eta babestu egiten ditu "Azaroaren 7ko manifestazioa" izenekoaren errei-bindikazioak, zeinak emakumeen eta haurren aurkako indarkeriak ikusaraztea bilatzen baitu.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernu eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu genero indarkeriaren aurkako lege integral bat taxutu dezaten eta osasunaren, hezkuntzaren, gizarte zerbitzuen eta justiziaren arloetan politika eraginkorrak gara ditzaten, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta haien beharrian guztiei erantzuteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Parlamentua "genero indarkeriarik gabeko eremua" deklaritzen du.

Iruñean, 2015eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Tasa Judizialei buruzko azaroaren 20ko 10/2012 Legeko manuak indargabetu ditzan.

ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Tasa Judizialei buruzko azaroaren 20ko 10/2012 Legeko manuak indargabetu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Funtzio Publiko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, enpresa txiki eta ertainentzako eta gobernuz kanpoko erakundeentzako tasa judizialak indargabetzeari buruzkoa, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Sistema demokratikoaren oinarriko zutabea den aldetik, botere publikoek ezarri beharreko balio gorenaren artean egon behar du justiziak, askatasunarekin, berdintasunarekin eta aniztasun politikoarekin batera. Justizia da gure Konstituzioaren euskarazko bertsioko hirugarren hitza, eta Foruaren Hobekuntzaren II. tituluko III. kapituluaren dago jasota. Hortaz, bai Espainiako Estatuak bai Nafarroak zaindu behar dute hura eskuratzeko bidea bermatuta egotea.

Justizia botere judizial independente batek gauzatu behar du, gizarteari zerbitzua emateko behar adinako baliabiderek, haren premia duten pertsonentzako eraginkorra den doako justizia-sistema baten bidez.

Justizia Administrazioaren eta Toxikologiako eta Auzitegiako Zientzien Institutu Nazionalaren esparruko zenbait tasa arautzen dituen azaroaren 20ko 10/2012 Legea indarrean sartzearekin batera aldatu egin zen Zerga, Administrazio nahiz Gizarte arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 53/2002 Legea; zehazki, 35. artikulua. Egitate bat da 10/2012 Legeak berrezarri egin zituela Espainian, izaera orokorrez, tasa judizialak, Tasa judizialak kentzeari buruzko abenduaren 24ko 25/1986 Legeak horiek kendu ostean. Azken lege horren zioen azalpenean esaten zenez, tasak kendu ziren ahalbidetze aldera “herritar guztiak lortu ahal izatea justizia, zein ere den haien egoera ekonomikoa edo soziala.”

10/2012 Legeak dio, bere aitzinsolaseko lehen lerroan, abenduaren 30eko 53/2002 Legeak berrezarri zituela Espainian tasa judizialak, eta hori ez da zehatza; izan ere, fakturazio handiko enpresei eta sozietateei dagokienetz soilik berrezarri zituen, tasa judizialak ordaintzetik salbuetsita gelditu baitziren entitate eta enpresa gehienak eta, garrantzitsuagoa dena, pertsona fisiko guztiak (53/2002 Legeko 35. artikulua). Martxoaren 24ko 4/2011 Legeak ere ez zuen izaera orokorrez berrezarri inolako tasa judizialik, salbu eta “Europako prozesu monitorioa” izenez ezagutzen den horretarako, zeinak mugaz gaindiko zorrak erreklamatzeko baitu xede. Horrenbestez, azaroaren 20ko 10/2012 Legea da Espainian, 26 urteren ondoren, tasa judizialak izaera orokorrez berrezarri zituena, zenbateko hain handirekin berrezarri ere non, dirua biltzeko izaera soila eduki baino gehiago, ematen baitu disuasio-efektu bat bilatzen dutela, eta horrek babes konstituzionala daukaten zenbait eskubiderek, egiten du bete-betean talka.

10/2012 Legea indarrean sartu zenez geroztik, konstituzio-kontrakotasuneko errekurso ugari jarri dira, konstituzio-kontrakotasuneko auzi ugari planteatu dira, babesik gabeko justiziapekoek babes-errekursoak aurkeztu dituzte, eta Arartekoak legea aldatzea gomendatu zuen. Justizia Administrazioaren esparruko tasen araubidea eta doako laguntza juridikoaren sistema aldatzen dituen otsailaren 22ko 3/2013 Errege Lege-dekretuaren bidez apur bat aldatu zen legea, kuota aldakorra jaitsi baitzen. Errege dekretu horren arabera, kontuan hartu zen Konstituzio Auzitegiak 2012ko otsailaren 16ko 20/2012 epaiaren bidez nahiz hurrengo beste batzuen bidez ezarritako doktrina,

zeinak balioztatu egiten baitu Justizia Administrazioa finantzatzeko sistema misto bat, zergen eta «jarduera judizialaren onuradunek ordaindutako tasen» kargura; ordea, ez du kontuan hartu Konstituzio Auzitegiak berak, Europako auzitegiei jarraikiz, tasak onartzen dituela baldin eta haien zenbatekoak ez badu eragozten jurisdikziorako sarbidea arrazoi ekonomikoengatik, eta kasu horretan soilik, eta hori da, hain zuzen ere, izan duten ondorena, tasak ezartzean ez baita aintzat hartu subjektu pasiboaren ahalmen ekonomikoa. Konstituzio Auzitegiaren arabera, “ikusiko balitz tasaren zenbatekoa hain dela altua ezen “praktikan” oinarritzko eskubidea baliatu ahal izatea kasu zehatz batean ezintzen edo oztopatzen baitu zentzuzkoak ez diren terminoetan, Konstituzioko 24.1 artikuluarekin bateraezina dela uler liteke».

Andaluziako Arartekoak honako ondorio hau atera zuen 2012ko ekitaldiari buruzko txostenean: nahiz eta legeak zenbait salbuespen objektibo ezarri arlo batzuetan tasa judizialei dagokienez eta tasak ordaintzetik salbuetsita deklaratu doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea duten pertsonak, uste dugu ezen tasak jurisdikzio-ordena guztietan –salbu eta zigor-ordenan– ezartzean, eta zenbateko handi horiekin gainera, urratu egin litekeela Espainiako Konstituzioko 24.1 artikulua, pertsona guztiak zaintza judizial efektiborako sarbidea izateari dagokionez; edo, gutxienez, epaitegietara eta auzitegietara sarbidea izateko eskubide garrantzitsu hori baliatzea oztopatu.

2013ko txostenean, Andaluziako Arartekoak adierazi zuen Tasen Legearen aplikazioak indartu egin dituela operadore judizialen oposizio tinkoa, erabiltzaileen nahigabea eta gure sistema judiziala hobetzeko emaitza praktikoa nahasiak. Lege honek jasotako neurrien norainokoak –eta urtean zehar aurkeztutako kexa ugarietan ikusi ahal izan dugun aplikazio praktikoa– garamatza arau berri hori ikustera Justizia Administrazioaren funtzionamendu normala larriki baldintzatu duen elementu gisa. Ez dugu zalantzarik egin hori larria dela berresteko, inpaktu orokortua izan baitu auzitegietan esku hartzen duten operadoreen eta arduradunen artean eta, jakina, justiziapekoen artean; baina orobat jo behar dugu larritzat epaitegietarako, auzitegietarako eta Justizia Administrazioaren organoetarako sarbideari dagokionez eman den murrizketak eragindako inpaktua.

10/2012 Legeak tasa bat ezartzen die sistema judizialaren erabiltzaileei, jarduera judizialaren eta doako justiziaren kostuak ordaintzen laguntzeko, baina tasaren zenbatekoa finkatzeko orduan ez dira aintzat hartu ez proportzionaltasun-irizpiderik, ez justiziapekoaren ahalmen ekonomikoa ere,

Espainiako Konstituzioak agintzen duen bezala. Lege honek ez du atzerapenen arazoa konpondu Nafarroako Justizian; izan ere, lan- eta merkataritza-arloko epaitegietan lau urte barrurako ari dira jartzen epaiketak, eta Justiziarako sarbiderik gabe utzi ditu ezarritako tasa judizialak ordaindu ezin izan dituzten pertsonak. Hortaz, tasa ordain dezakeenak geroratze-asmo hutsez jarriko ditu errekurtsioak, haren jarreraren sendotasun judiziala gorabehera; aitzitik, interesdunak tasa ordaintzeko ahalmen ekonomikorik ez badu eta gainera epaia zalantzazkoa bada, litekeena da errekurtsorik ez jartzea.

Operadore juridikoez edo motu proprio egindako presioaren ondoren, Bigarren aukeraren mekanismoari, finantza-zama murrizteari eta gizarte-arloko bestelako neurri batzuei buruzko otsailaren 27ko 1/2015 Errege Lege-dekretuko 11. artikulua bidez azaroaren 20ko 10/2012 Legeko 4. artikulua aldatu zen; hartara, salbuespenen artean jaso ziren, ikuspuntu subjektibotik, pertsona fisikoak, baina tasa judizial oso handia ordaintzen jarraitu behar dute subjektu juridikoez, zeinek 10/2012 Legea arte ez baitzuten tasarik ordaindu behar; esate baterako, Irabazi asmorik gabeko entitateen araubide fiskalari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeko araubide fiskal bereziari atxikitzea erabaki duten irabazi asmorik gabeko entitateak eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudian ezarritakoarekin bat tamaina txikiko entitatetzat hartzen diren subjektu pasiboak.

Irabazi asmorik gabeko entitateei buruz, Andaluziako Arartekoak tasa judizialeatik salbuestea eskatu zuen jada 2013ko bere txostenean, zeinean nabarmendu baitzuen elkarte ekologistek tasa horien kostua hartu behar dutela beren gain (salbu eta zeharo ohiz kanpokoak diren zenbait kasutan), auzitegietara interes kolektiboak defendatzera jotzen dutenean; esaterako, "ingurumenerako eskubide konstituzionala" kontzeptuaren barruan sartu ohi direnak eta irabazi asmorik gabeko entitate horiek bakarrik defendituko lituzketen beste interes kolektibo batzuk. Entitate horiek tasa judizialak ordaindu behar izatea da Konstituzioaren eta estatutuen araberrako eskubide bat bere alderdi ezberdinetan baliatze aldera entitate horiek duten mekanismo bat ahultzea, ustez urraketa bat gertatu denean. Kasurik gehienetan, herritarrek gisa honetako ekintzak baliatzen dituzte norberaren esparru pertsonal, familiar eta, betiere, pribatuari eragiten diotenean soilik. Hortaz, entitate horien eginkizuna behar-beharrezkoa da; hartara, irabazi asmorik gabeko entitate horiek tasa judizialak ordaintzetik

salbuesitako subjektuen artean sartu beharra dago.

Sozietateen gaineko zergari buruzko araudian ezarritakoarekin bat "tamaina txikiko entitate" diren subjektu pasiboak ez daude salbuesita, nahiz eta horiek diren gure gizartea gaur egun pairatzen ari den krisi ekonomikoak gehien kaltetutako subjektuak. Zama horren ondorioz, kasu askotan, ez dute Justiziarako jotzerik izaten, ez delako kontuan hartzen zein den horien ahalmen ekonomikoa.

Horregatik proposatzen dugu azaroaren 20ko 10/2012 Legeak ezarritako tasa judizialak indargabetzea; izan ere, zaintza judizial efektiboa urratu eta justiziapeko defentsa eragozten dute, karga neurrigabe eta disuasiokoa direlako, subjektuaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen ez duena. Karga hori ezin ordainduzkoa da Irabazi asmorik gabeko entitateen araubide fiskalari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeko araubide fiskal bereziari atxikitzea erabaki duten irabazi asmorik gabeko entitateentzat, bai eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudian ezarritakoarekin bat tamaina txikiko entitatetzat hartzen diren subjektu pasiboentzat ere.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du, Osoko Bilkurak onets dezan:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Espainiako Gobernua premiatzera Tasa Judizialei buruzko azaroaren 20ko 10/2012 Legeko manuak indargabetu ditzan.

2. Espainiako Gobernua premiatzera behar diren mekanismoak ezar ditzan, Nafarroari eskualdatu ahal izate aldera bere lurraldean 2013an, 2014an eta proposamen honen 1. puntuan aurreikusitako indargabetzera bitarte kobratutako tasa judizialei dagokien zenbatekoa, halako moduan non diru hori bideratuko baita doako laguntza juridikoa dela-eta autonomia erkidego honek dituen gastuak estaltzera, azaroaren 20ko 10/2012 Legeko 11. artikuluan xedatutakoa egiaz bete dadin.

3. Espainiako Gobernua premiatzera Estatuko Aurrekontu Orokorretan Justiziaren kontusailera bidera dezan European batez beste bideratzen den zenbatekoa.

Iruñean, 2015eko urriaren 14an

Eleduna: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie giza eskubide guztiekiko errespetuz elkartasun internazionalista garatzen duten erakunde eta pertsona guztiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die giza eskubide guztiekiko errespetuz elkartasun internazionalista garatzen duten erakunde eta pertsona guztiei.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna erakusten die irizpide juridikoei jarraikiz baino gehiago irizpide politikoei jarraikiz inputatutako bost euskal internazionalistei.

3. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Walter Wendelin, Gabi Basáñez, Unai Vázquez, Aritz Ganboa eta Dabid Soto euskal internazionalisten aurkako prozesu judiziala bidezkoa eta baldintzaren politikorik gabekoa izan dadin, eta, kasu bada, beren eskubide guztiak eta erreparazio egozia onar dakizkien”

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, Trans Despatologizazioaren aldeko Ekintzaren Nazioarteko Eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere adostasuna eta babesa adierazi nahi ditu STP nazioarteko plataforma ekintzaileak sinatutako manifestua dela-eta –manifestua adierazpen honi erantsirik doa–, pertsona transexualen patologizazioaren aurkakoa.

Nafarroako Parlamentuak gonbit egiten die herritarrei urriaren 24an nahiz urte osoan zehar parte har dezaten trans despatologizazioaren alde borrokatzeko antolatzen diren ekitaldietan, bai eta trans pertsonen kolektiboarentzako aukera eta eskubide berdintasun erreala lortzeko ere.

Nafarroako Parlamentuak transfobiarik gabeko lurralde deklaratzeko du Nafarroa, eta arbuiatu egiten du pertsona transexualen aurkako indarkeria mota oro.

Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea aldatzeko, transexualitatea despatologizatzeko eta legea aplikatzen dela zaintzeko.

Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten ditu pertsona transexual adingabeen eta pertsona intersexual jaioberrien berariazko beharrianak, eta arbuiatu egiten ditu berariazko adostasun informaturik gabe haien gorputzetan egindako sexu-normalizazioko jarduerak.”

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

(Oharra: Aipatu manifestua Nafarroako Parlamentuaren webgunean kontsultatu daiteke: www.parlamentodenavarra.es/inicio/publicaciones/documentos.aspx).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuteran kokatutako Osborneren zezenaren aurkako sabotajea dela-eta Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Belrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Tuteran kokatutako Osborneren zezenaren aurkako sabotajea dela-eta Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Belrán

Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko eledun Olo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan urriaren 9an, Ernai erakundeko erradikal biolentoen talde batek Tuteran kokatutako Osborneren zezena eraitsi zuen.

Hona galdera:

Nafarroako Gobernuak zer jarrera du sabotaje-ekintza horri dagokionez? Ba al du sabotajearen egileen aurkako lege-neurririk abiarazteko asmorik? Ba al du zezena berriro jartzeko asmorik?

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Belrán Villalba

Galdera, Nafarroako Gobernuak autobideen eta autobien doakotasunaren gaineko irizpidea bateratzearen gainean daukan jarrerari buruzkoa.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak autobideen eta autobien doakotasunaren

gaineko irizpidea bateratzearen gainean daukan jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan urriaren 8ko Osoko Bilkuran, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manuel Ayerdi Olaizola jaunak mahai gainean jarri zuen Iruña-Tutera autobidearen eta Nafarroan egindako auto-

bien arteko desberdintasuna, bata ordainpekoa izateagatik eta besteak, aldiz, ez.

Nafarroako Gobernuaren jarrera al da ardatz guztietarako –autobideetarako eta autobietarako– irizpidea bateratzea?

Baiezkoan, autobideen doakotasuna ezarriko duzue ala, aitzitik, autobietan bidesaria ezarriko duzue?

Tuteran, 2015eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Galdera, Bideberri Kolektiboko kide batzuek Mendillorriko Jauregia aldarrikapen baterako okupatu izanari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Bideberri Kolektiboko kide batzuek Mendillorriko Jauregia aldarrikapen baterako okupatu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko kide Juan Luis Sánchez de Muniáinek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun ditzan:

Iragan abuztuaren 30ean jakin genuenez, Bidegorri kolektiboko pertsona-talde batek Mendillorriko Jauregia okupatu zuen –jauregia Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa da–, zenbait erreibindikazio-jarduera egiteko xedez.

Kolektibo horren eledunak egindako adierazpen publikoetan honako hau esan zuen, hitzez hitz: "...ez geneukan gazteluan sartzeko baimenik. Nasuvinsak besterik gabe adierazi zigun ez zuela gure kontrako salaketarik jarriko, baina baimenik ere ez zigula emanen."

Horregatik guztiagatik, honako galdera hau aurkezten dugu, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

– Nafarroako Gobernuaren jabetzako higiezin horren okupazioak ba al zeukan behar bezalako baimenik? Agirituta al dago horri buruzko eskabiderik?

– Okupazio horrek eta egindako jarduerak ez baldin bazeukaten kasuko baimenik, Nasuvinsak –jauregiaren entitate kudeatzailea den aldetik– edo Gobernuak neurririk hartuko al dute ondare hori beharrezkoa den baimenik gabe erabili zutenen aurka?

– Okupazio hori dela-eta ez baldin bada prozedurarik abiarazten, Gobernuak ba al du asmorikoro har baimentzeko edozein kolektibok eta entitate pribatuk edo pertsona partikularrek Gobernuaren jabetzako higiezinak erabiltzea alde aurreko baimenik eskatu gabe?

Iruñean, 2015eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, zerbitzuak euskaraz ematea eskatzen duten herritarren eskariei buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, zerbitzuak euskaraz ematea eskatzen duten herritarren eskariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peña, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraikiz, ondoko ahozko galdera egin nahi du Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

2015eko uztailearen 8an Etxarri-Aranazko Udalak idazki bat igorri zion Nafarroako Arartekoari, 592 eskaerarekin batera. Idazki horren bidez, Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuari eta Hezkuntza Departamentuari zuzendutako kexa agertu zen. Alde batetik, Osasun Etxean nahiz Emakumeari Laguntzeko Zentroan ematen diren zerbitzuak euskaraz izan daitezen eskatzen zen; bestetik, Emakumeari Laguntzeko Zerbitzuko

hezitzaileek Sakana, Larraun eta Leitza-Goizueta udalerrietan ematen duten sexu-hezkuntzaren arloko orientazio psikopedagogikoa ere euskaraz eskain zedin eskatzen zen. Hori guztia, 1986ko euskararen legeak administrazioarekin harremanak euskaraz izateko herritarrei aitortzen dien eskubidean oinarrituta.

Arartekoak kexa helarazi zien aipatutako bi departamentuei, eskakizunari buruzko argibideak eskatuz, baita bi iradokizun egin ere: eskaeretan aipatutako hizkuntza-eskubideak berma daitezela, batetik, eta Foru Administrazioaren plantilla organikoa errealitate soziolinguistikora egokitu dadila, bestetik.

Horretaz gain, 2014. eta 2015. urteetan Leitzan, Goizuetan, Aranon, Areson, Bortzirietan eta Baztanen ere osasun zerbitzua euskaraz jaso ahal izateko eskaera zabal bat egin zen, mediku eta bereziki pediatra euskaldunak eskatuz, eta eskualde horietako osasun etxeetan 754 herritarrek sinatutako eskaerak erregistratu ziren.

Euskarazko arreta eskatzeko herritar horiek guztiek egindako eskaerak eta Arartekoak berak eskaera horien inguruan emandako iritzia kontuan izanda, zein dira Nafarroako Gobernuak eginen dituen urratsak eskaera horiei erantzuteko eta, zehazkiago, osasun zerbitzuetan euskarazko arreta eta eskubidea bermatzeko?

Iruñean, 2015ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, programa-akordioan ezgaitasuna dela-eta hartutako konpromisoak betetzeari buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, programa-akordioan ezgaitasuna dela-eta hartutako konpromisoak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernandez de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita-

koaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aldaketaren lau indarrek sinatutako programa-akordioak ezgaitasunaren esparruari buruzko hainbat konpromiso jasotzen ditu; horien artean:

1.- Ezgaitasunaren sektorean lan-hitzarmena berreskura dadin sustatzea.

2.- Ezgaitasuna artatzeko zentroak egun kudeatzen dituzten enpresek kontratua nola bete duten aztertzea, ikuste aldera kontratua desegitearen egokitasuna.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Zer urrats egin da edo egiten ari da neurri horiek bete daitezen? Zer kronograma darabilzue?

Iruñean, 2015eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Nafarroako Erriberan giza, industria- nahiz ureztaketa-hornidurarako ur-beharrizanak bermatzea dela-eta Gobernuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Erriberan giza, industria- nahiz ureztaketa-hornidurarako ur-beharrizanak bermatzea dela-eta Gobernuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zer aurreikuspen darabil Nafarroako Erriberan giza, industria- nahiz ureztaketa-hornidurarako ur-beharrizanak bermatzea dela-eta, kantitateari eta kalitateari dagokienez?

Corellan, 2015eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Osasun Departamentuko organigramako parekidetasunari buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuko organigramako parekidetasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Mónica Doménech Lindek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Parlamentu honetako Bilkura Egunkarian argitaratu denez, kontseilariak honako hau adierazi zuen hitzez hitz, Osasun Batzordean egindako agerraldian:

“Halatan, bi hitz esan nahi ditut organigrama parekidea ez izateagatik egindako kritika dela-eta; hori horrela da, eta onartu egiten dut kritika. Egia da saiatu garela, baina sarritan postu jakin batzuetarako emakumeak lortzeak talka egiten du nolabait emakume askok daukaten jarrera lauda-

garriarekin, prest daudenak beren garapen profesionala kaltetzeko beste mota bateko..., haien balio-eskalan, lehenetasuna ematen diete seme-alabekin denbora gehiago emateari, eta abar. Eta, egiazki, sarritan oso zaila izaten da denbora asko kenduko dieten ardura-postuetan egon nahi duten emakumeak aurkitzea. Kontua ez da da gaitasuna, ezpada pertsona egokiak aurkitzea zaila izaten dela askotan. Jakina, onenak aurkitu nahi ditugu, eta lortzen baldin badugu onenak izanda ehuneko 50 izatea gizonezkoak eta ehuneko 50 emakumezkoa, oso ondo, baina ez dut uste ehuneko 50eko parekidetasuna lortzen tematu behar denik, baldin eta lortu nahi dugun helburua arriskuan jartzen badugu nolabait”

– Domínguez kontseilariaren ustez, emakumeok gure seme-alabak zaintzera dedikatu behar al dugu eta ez al daukagu astirik zuzendaritza-postu jakin batzuetarako?

– Kontseilariak nola justifikatzen du XXI. mende bete-betean emakumeok uko egitea lehen lerroan lan egiteari gure balioak beste batzuk izateagatik eta balio horiek gure garapen profesionalaren aurretik jartzeagatik?

– Osasuneko kontseilariak zenbat emakume proposatu ditu bere departamentuaren egiturarako?

– Eta zenbat emakumek eman diote ezezkoa bere eskaintzari familia eta kontziliazio arrazoien-egatik?

Iruñean, 2015eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, zerga-igoerak enpresen eta nafar zergadunen deslokalizazioan izan dezakeen eragina ezagutze aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan aurreikuspenei eta azterlanei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, zerga-igoerak enpresen eta nafar zergadunen deslokalizazioan izan dezakeen eragina ezagutze aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan aurreikuspenei eta azterlanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen eta azterlan ditu jakiteko zerga-igoerak zer eragin izanen duen Nafarroako enpresen eta zergadunen deslokalizazioari dagokionez?

Iruñean, 2015eko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, jakiteko noizko aurreikusten den Tuterara eta Nafarroako Erriberara heltzea Itoizko urtegiko edateko ura.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, jakiteko noizko aurreikusten den Tuterara eta Nafarroako Erriberara heltzea Itoizko urtegiko edateko ura.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du Tuterara eta Nafarroako Erriberara heltzea Itoizko urtegiko edateko ura?

Iruñean, 2015eko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Tafallako “Sancho III el Mayor” Bigarren Hezkuntzako Institutuko DBHko zenbait taldetan matematikako irakaslerik ez edukitzeko arrazoiei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tafallako “Sancho III el Mayor” Bigarren Hezkuntzako Institutuko DBHko zenbait taldetan matematikako irakaslerik ez edukitzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

1. Tafallako “Sancho III el Mayor” Bigarren Hezkuntzako Institutuko guraso-elkarteak jakinaz duenez, ikastetxeko DBHko eta Batxilergoko zenbait taldetan matematikako irakaslerik gabe daude irailaren 21az geroztik. Zergatik?

Noiz konponduko da egoera hori?

3. Departamentuak zer erabaki hartu ditu gabezia horiek arintzeko?

Corellan, 2015eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Alkerdiko kobazuloari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Alkerdiko kobazuloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Juan Luis Sánchez de Muniáin foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz, honako galdera idatzi hau egiten dio Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari:

Zertan dira interes kultureko ondasun gisa deklaratura dagoen Alkerdiko kobazuloaren babesa dela-eta egiten ari diren zuzemenak eta hartuko diren erabakiak?

Iruñean, 2015eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak ezartzearen ondoriozko irakasle-lanpostuak eskuratzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak ezartzearen ondoriozko irakasle-lanpostuak eskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique, Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien zenbait lanpostu probisionalki, behin betiko eta zerbitzu eginkizunen araubidean hornitzea; besteak beste, atzerriko hizkuntzetako ikaskuntza programak ezartzearen ondoriozko lanpostuak, hizkuntza eskakizuna dutenak.

Foru dekretu horretako 9. artikulua ezartzen duenez, behin betikotasunez betetzeko atzerriko hizkuntzaren (frantsesa, ingelesa eta alemana) eskakizuna duten irakaskuntza espezialitateei dagozkien lanpostuak, irakasleek dagokion atzerriko hizkuntzaren gaitasun agiria izan beharko dute, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak luzatutakoa. Gaitasun hori PI, PF edo PALE eskakizunak eskuratuz egiaztatuko da, martxoaren 11ko 32/2013 Foru Aginduan ezarritakoa rekin bat.

Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuko xedapen iragankorrak orobat aurreikusten du atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuak aldi baterako betetzeko egiaztagirir iragankorrak lortu

ahalko direla, zeinak 2021eko abuztuaren 31n iraungiko baitira.

Foru dekretu horretaz gain, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren uztailaren 10eko 341/2014 Ebazpena ere onetsi zen, apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuan araututako hizkuntza egiaztagirir iragankorrerako prestakuntza ikastaroak onetsi eta haiek egiaztatze prozedura ezartzen duena.

Hortik ondorioztatzen da aurreko Gobernuak ezarri zuela –noiz eta 2021a bitarte– ingelesez irakasteko behar den hizkuntza eskakizunik ez daukaten irakasleek –bereziki, Ingelesez Ikasteko Programan parte hartzen duten irakasle-unitateetan dihardutenek– egiaztagirir iragankorra lortu ahal izatea ingelesez jakitea exijitzen duten lanpostuetan aldi batez jarduteko. Halatan, paradoxikoa bada ere, aldi baterako langileak kontratatze zerrendetan, B2 hizkuntza-maila soilik daukaten pertsonak baino beherago daude C1 maila daukaten pertsonak, C1 denean eskatutako maila.

Aipatutako araudiaren ondorioz eta apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuko xedapen iragankorren adierazitako inguruabarretako bat betetzearen ondorioz, diskriminazioa gertatzen ari da aldi baterako langileak kontratatze zerrendetako pertsonen artean, eta horrek kalte larria dakarkio ikaskuntzen kalitateari; izan ere, ahalbidetu egin da Ingelesez Ikasteko Programan hainbat irakasle egotea C1 mailarik eduki gabe, zeinek, halere, lehentasuna izanen baitute maila hori lortu dutenen aldean, gutxienez ere 2021eko abuztuaren 31ra bitarte.

Horrenbestez, parlamentari honek galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzuteko:

1. Gobernuak apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren edukia aldatuko al du, xedapen iragankorren edukia aldatzeko edo indargabetzeko, halako moduan non ekidin egingen baita egiaztagirir iragankorrak ematea eta hizkuntza mailarik ez daukaten pertsonen ingelesa irakatsi ahal izatea gutxienez ere C1 maila eskatzen duten lanpostuetan?

2. Ingeleseko C1 maila ez daukaten zenbat pertsona parte hartzen ari dira une honetan irakasle moduan Ingelesez Ikasteko Programan?

3. Zenbat pertsonak lortu dute apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuko xedapen iragankorrak aurreikusitako ingelesezko egiaztagiri iragankorra?

4. Ingelesezko lanpostuak aldi baterako betetzeko kontratazio-zerrendetan zenbat pertsona daude C1 maila izanik maila hori ez duten eta egiaztagiri iragankorra dutenen atzetik?

5. Departamentuaren asmoa omen da Ingelesez Ikasteko Programan parte hartzeko irakasleei exijitzen zaien maila B2 mailara jaistea. Egia al da hori?

Iruñean, 2015eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, beste autonomia erkidegoekin alderatuta Nafarroan 2016rako ezarriko diren zerga-tasei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, beste autonomia erkidegoekin alderatuta Nafarroan 2016rako ezarriko diren zerga-tasei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Egungo Nafarroako Gobernuak aurkeztutako erreforma fiskalaren proposamena ikusita, nola geldituko dira Nafarroako 2016rako zerga-tasak –PFEZarenak, aurrezkiarenak, ondarearen gaineko zergarenak eta sozietateen gaineko zergarenak–, Euskal Autonomia Erkidego, Aragoi, Madril, Errioxa eta Galiziakoekin alderatuta? Erkidego bakoitzaren datuak xehakaturik eta bereizita eskuratu nahi ditugu.

Iruñean, 2015eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Iruñeko San Frantzisko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko patioari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, Iruñeko San Frantzisko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko patioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Roncesvalles Solana Aranak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik Iruñeko San Frantzisko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko patioa partzialki estaltzeko egin beharreko obrak egiteko?

Baiezkoan, noiz egingen da obra hori?

Iruñean, 2015eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: M.^a Roncesvalles Solana Arana

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**“Nafarroan enpleguaren egoera aztertu eta hura sustatzea eta sortzea”
gaiari buruzko eztabaida antolatzeako arauak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Ondoko arauak onestea, zeinen bidez antolatzen baita “Nafarroan enpleguaren egoera aztertu eta hura sustatzea eta sortzea” gaiari buruzko eztabaida:

“1. Eztabaida hasiko da Osoko Bilkura monografikoa proposatu duen parlamentu-taldearen eledunaren mintzaldiarekin, gehienez ere hogeita minutu iraunen duena.

Ondoren, eskatzen duten parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarten eledunak mintzatuko dira, eta denbora-tarte bera izanen dute. Mintzaldien hurrenkera kideen kopuruari begira ezarriko da, gehien dituztenetik hasi eta gutxien dituztenekin bukatzeko.

2. Aurreko txanda bukatuta, Nafarroako Gobernu kide bat mintzatzen ahalko da, eztabaidagai diren gaien inguruko bere jarrera azaltze aldera, aurreko arauan ezarritako iraupen berarekin.

3. Eztabaida bukatuta, bilkura ordubetez etenen da, eta Mahaiari erabaki proposamenak aurkezteko epe bat irekiko da. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere bost erabaki proposamen aurkezten ahalko ditu, eztabaidagaiarekin zuzeneko zerikusia izanen dutenak.

Proposamenak bilkura eten eta hamabost minutuko epean aurkeztu beharko dira. Jarraian, ondoko hamabost minutuetan, proposamenak onartuko dira eta parlamentu-taldean edo foru parlamentarien elkarten eledunei helaraziko zaizkie, zeinek hogeita hamar minutu izanen baitituzte proposamenak aztertzeko.

4. Bilkura berriro hasten denean, onarturiko proposamenak batera defendatuko dira, gehienez ere hamar minutuz, 1. arauan ezarritako eztabaida-hurrenkerari jarraituz, eta eledunek haien iritzia emanen dute, halaber, gainontzeko parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarteek aurkezturikoen inguruan.

5. Proposamenen eztabaida amaiturik, aurkezpen-hurrenkerari jarraituz bozkatuko dira. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak egindako proposamenak batera bozkatuko dira. Halere, edozein eledunek hala eskaturik, aparte bozkatzen ahalko dira”.

2. Agintzea arau horiek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

3. Erabaki hau jakinaraztea Nafarroako Gobernuari eta parlamentu-taldean eta foru parlamentarien elkarten eledunei.

Iruñean, 2015eko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoa erabiltzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak, Zerbitzu Juridiko oniritziarekin, Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoa erabiltzeko arauak onesteari buruzko txosten bat eman du. Txosten hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoa erabiltzeko arauak onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoa erabiltzeko arauak

Informazioaren teknologien eta komunikazioen etengabeko garapenak begi-bistako abantailak ekarri dizkio Nafarroako Parlamentuari bere eginkizunak gauzatzeko.

Tresna hauekin datu-kopuru handia kudeatzen da askotariko gailuetatik (mahai gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, smartphoneak eta tabletak), eta gero eta gehiago jotzen da horrelako tresnak erabiltzera. Horren ondorioz, gaur egun erabiltzen den sistema informatikoak badu konplexutasunik, eta segurtasunak ziurtatuta egon behar du uneoro. Erabiltzaileak kontzientziatuta egon behar du informazioaren segurtasunari dagokionez, eta, aldi berean, eskueran dituen sistema informatikoen erabilerari dagokionez, bete beharreko arau batzuk izan behar ditu. Funtszkoa da, beraz, Nafarroako Parlamentuan ekipamendu informatikoa erabiltzen duen erabiltzaile orok ezagut ditzan.

Horregatik, sistemaren kudeaketa egokia ziurtatzeko, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bertako sistema informatikoa erabiltzeko honako arau hauek onestea erabaki du, ziurtatzeko erabiltzaileek ongi erabiltzen dituztela beren eskura jarritako baliabide teknikoak.

1. artikulua. Ekipamendu informatikoa.

1. Nafarroako Parlamentuak, Zerbitzu Orokorren bidez, erabiltzaileen eskura jartzen du erabiltzaile bakoitzak bere lanpostuarekin zerikusia duten eginkizunetarako behar duen ekipamendua.

Ondorioz, ekipamendu hori Nafarroako Parlamentuaren jabetzako da, eta ez da erabilera pertsonalerako, salbuespenak gorabehera eta era mugatuan, arau hauetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Zerbitzu Orokorren unitatea da, ikuspuntu teknikotik, baimena duen bakarra gailu bakoitzak zer hardware- eta software-konfigurazio izanen duen zehazteko eta sare korporatiborako sarbideak administratzeko. Horrek, hala ere, ez du eraginik Erregelamenduan ezarritakoaren arabera Mahaiak Nafarroako Parlamentuaren barne-arabideko eta -gubernuko organo eskudun goren gisa dituen ahalmenetan.

3. Debekatua dago, Zerbitzu Orokorren baimen espresik gabe, ekipoen konfigurazio fisikoa aldatzea, bai eta bestelako gailuak konektatzea ere (inprimagailuak, eskanerrak, etab.), eta horien kokagunea aldatzea ere bai.

4. Erabiltzaileak debekatua du erabiltzen duen ekipoen softwarearen konfigurazioa aldatzea, hau da, erabiltzaile-profil bakoitzarentzat aurretik zehaztutako konfigurazio logikoaz aparteko programak edo bestelako edozein software-mota instalatzea nahiz desinstalatzea. Erabiltzaileak bere ohiko lana egiteko beharko balu aurreikusi gabeko programaren bat, Zerbitzu Orokorrei eginen die eskaera, bere arduradunaren oniritzia duen idazki baten bidez, non beharrak zeintzuk diren zehaztuko baita. Zerbitzu Orokorrek, behin eskaera ikuspuntu teknikotik analizatuta, erabakiko dute ea egokia den edo ez eskatutakoa instalatzea, eta, kasua bada, behar horiei aurre egiteko ordezkotresna egokiena proposatuko dute. Edonola ere, software ororen instalazioa Zerbitzu Orokorrek eginen dute, kasuko erabiltze-lizentzia jadanik eskuratuta dagoenean.

5. Erabiltzaileak behar bezala zaindu beharko ditu eskura jarri zaizkion gailuak. Gailua matxuratu, hautsi, galdu edo lapurtua suertatuz gero, Zerbitzu Orokorrei eskatuko zaie konponbidea. Ordezko beste gailu bat jartzeko, betiere, kaltetutako gailua entregatu beharko da, salbu eta gertatutakoa galera edo lapurreta izan bada, zeren eta, orduan, polizia-etxean edo organo eskuduneari salaketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko baita ordezkotresna beste gailu bat jaso aurretik.

6. Parlamentuko Mahaiak arautuko du zer kasutan pasa daitezkeen Nafarroako Parlamentuaren jabetzako gailu informatikoak pasa daitezkeen foru parlamentarien jabetzakoak izatera. Kasuotan, gailua erabiltzaileari behin betikoz eman aurretik, erabiltzaileak Zerbitzu Orokorretara

ko teknikari informatikoen esku utzi beharko du, hartatik Nafarroako Parlamentuaren jabetzakoa den softwarea desinstala dezaten eta, hala, ekipoa liberatuta geldin dadin.

2. artikulua. Informazioaren trataera.

1. Nafarroako Parlamentuaren sare korporatiboa baliabide konpartitu eta mugatua da, eta balio du erabiltzaileak Interneten eta intraneten sartzeko ez ezik, aplikazio informatibo korporatiboetara sarbidea izateko eta sistemen arteko datu-komunikaziorako.

2. Nafarroako Parlamentuaren sare korporatiboa dagoen informazio guztia Nafarroako Parlamentuaren jabetzakoa da eta, beraz, izaera konfidentziala du.

3. Erabiltzaileek, esleituak dituzten eginkizunen arabera kudeatu beharreko informazioa tratatzerakoan, nahitaezkoa izanen dute zuhertasuna, isilpekotasuna eta arduratasun profesionala. Trataera berezia izanen dute Datuak Babesteko Espainiako Agentzian Nafarroako Parlamentuak bere erantzukizunpekoak diren aldetik erregistratutako fitxategietan jasotako datu pertsonalek, zeinak Datuak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoaren eta ondorengo arau aplikagarrien babesa baitaukate.

4. Erabiltzaileak, beraz, Nafarroako Parlamentuan ezarritako segurtasun-politiken arabera jokatuko du.

3. artikulua. Laguntza- eta mantentze-lanak.

1. Zerbitzu Orokorrek beharrezko laguntza emanen dute gerta daitezkeen intzidentzia eta matxuretan. Kasuan kasuko langileek zilegi izanen dute beharrezkoak diren ekipoa, programak eta komunikazio-elementuak gainbegiratzea, beharrezko laguntza-, kudeaketa-, mantentze- eta hobetze-lanak egiteko.

2. Laguntza-eskaera oro, edozein motatakoa dela ere, Zerbitzu Orokorrei egin behar zaie lehen urrats gisa, horretarako ezartzen diren baliabideen bitartez.

3. Zerbitzu Orokorretako langileen ekipoetatik urruneko kontrolaren bidez konpon daitezkeen intzidentzietan, erabiltzailearen alde aurreko baimena beharko da konponketa horrela egiteko.

4. Matxurek edo intzidentziek izaera pertsonaleko datuen segurtasuna arriskuan jartzen badute, intzidentziak jakinarazteko prozedura erabiliko dute erabiltzaileek, halako prozedura bat gaitua izanen baitu segurtasun-arduradunak. Zerbitzu Orokorrek beharrezko laguntza emanen dute ma-

txura edo intzidentzia konpontzeko, eta intzidentzien erregistroan erregistratuko dute.

4. artikulua. Segurtasuna eta kontrola.

1. Sistema informatikoaren segurtasuna mantentzea helburu, nahitaez bete beharko dira Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Zerbitzu Orokorrek proposatuta unean-unean ezarritako segurtasun-neurriak. Halaber, bete beharrekoak izanen dira izaera pertsonaleko datuei buruz Nafarroako Parlamentuaren Segurtasun Agirian ezarritako segurtasun-neurriak.

2. Bere ohiko lana egiteko ordenagailu edo gailu mugikor bat erabiltzen duen orok erabiltzailearen batez adierazi beharko du nor den –Zerbitzu Orokorrek emanen diote izen hori–, eta pasahitz bat erabili beharko du, Nafarroako Parlamentuko Segurtasun Agirian ezarritako moduan erabiltzaileak berak sortua. Erabiltzailea izanen da pasahitza dakien bakarra eta horren arduraduna, eta, pasahitzaren erabilera pribatua ziurtatzearen, egoki irizten badio pasahitza aldatzeari, betiere izanen du horretarako modua.

3. Erabiltzaileak susmatzen duenean beste norbaitek erabili duela bere nortasuna, berehala adierazi beharko die Zerbitzu Orokorrei.

4. Lanpostua aldi baterako uztean, saioa amaitu eginen du erabiltzaileak edota, bestela, ekipoa blokeatuta utzi. Lanaldiaren amaieran, ekipoa behar bezala itzalita utziko dira.

5. Arreta berezia eskaini beharko zaio Parlamentuaz kanpotik posta elektronikoz, kanpoko fitxategien bidez edo bestelako tresnen bidez iritsitako informazioari, bai eta ordenagailuan kanpo-euskarrien bidez sartutakoari –konparazio baterako, diskete, CD/DVD edo USB gailuen bidez sartutakoari–; izan ere, edozein birus-mota sartuz gero, horrek eragina izan baitezake ez soilik norberaren ordenagailuan, baita gainerako guztietan ere, konektatuta baitaude sare lokalaren bidez. Gailuok lanpostuetan instalatutako birusen kontrako programarekin analizatu behar dira.

6. Zerbitzu Orokorren ardura da birus informatikoen kontrako babes egoki eta eguneratua ematea. Babes horrek eskatzen du etengabeko eguneratzea egin dadin lanpostuetan, zeina modu automatikoan egiten baita, erabiltzailea sare korporatibora edo Internetera konektatuta dagoenean.

7. Erabiltzaileak, birusen kontrako softwarearekin zerikusia duen edozein anomalia detektatuz gero bere lanpostuan, Zerbitzu Orokorrei adieraziko die. Gomendagarria da erabiltzaileek, aldian-aldian, beren biltegitratze-unitateak eskaneatzea,

eta betiere jokatzeari horrela jatorri ezezaguneko edo susmagarriko fitxategiekin.

8. Sistemaren prestazioak hobetzeko helburuz, eta gerta daitezkeen matxurak edo intzidentziak kontuan hartuta, gomendatzen da datuak karpeta-tan eta azpikarpetatan antolatuta izatea, eta beharrezkoak ez diren datuak ezabatzea, bereziki posta elektronikoa dagozkionak.

9. Debekatua dago baimendu gabeko gailuak konektatzea Nafarroako Parlamentuko sareari.

10. Erabiltzaileak babestu egin beharko ditu Nafarroako Parlamentuak eskuratu dizkion gailuetan dauden datuak, erakundeak ezarritako segurtasun-neurrien bidez. Halaber, eskuratu zaizkion aktiboetako edozein galtzen badu edo lapurtzen badiote, horren berri eman beharko du.

5. artikulua. Informazioaren babesa.

1. Erabiltzaile bakoitza arduratuko da esleitu zaion ordenagailuan gordetako informazioaren segurtasunaz. Halaber, informazio hori babesteko eginkizunen arduradun ere izanen da. Zerbitzari korporatiboetan gordetako datuen aldizkako segurtasun-kopiak egitea Zerbitzu Orokorren ardurara da.

2. Beharrezkoa izanez gero edo egoera berezietan, Zerbitzu Orokorrek baliabide osagarriak ematen ahalko dituzte informazio bereziki delikatuak babesteko.

6. artikulua. Interneten sartzeari.

1. Interneterako sarbidea helburu profesionalerako da. Debekatua dago multimedia artxibo edo fitxategiak igotzea edo jaistea, baldin eta duten bolumenagatik Parlamentuaren barneko sarea kongestionatuta badezakete, eta debekatua dago, halaber, lanpostuarekin zerikusirik ez duen inolako softwarerik igotzea edo jaistea. Erabiltzaileak horrelako artxibo edo fitxategiak igo edo jaitsi behar baditu bere eginkizunak gauzatzeko, baime-na eskatu beharko die Zerbitzu Orokorrei.

2. Beren ezaugarriak direla-eta birusak edo malwarea kutsatzeko arriskua izan dezaketen webgunetan, zehaztasun are handiagoz jokatu beharko da. Interneterako sarbidea kongestionatuta badago edo gaizki funtzionatzen badu, Zerbitzu Orokorrek baimena dute behar diren azterlanak eta kontrolak egiteko problema zein den zehazteko, eta mugatu egin dezakete bai zenbait webgunetarako sarbideari eta bai sistemaren errendimenduari kalte egiten dioten fitxategiak jaitzea.

3. Interneten bidez lortutako edozein artxibo erabili aurretik, erabiltzaileak egiaztatu beharko du

ea artxibo hori jabetza intelektualaren edo industrialaren arloko legeek babestua ote dagoen.

7. artikulua. Posta elektronikoa erabilerari.

1. Posta elektronikoa lan-tresna bat dela jotzen da, erakundearen jabetzakoa, eta erabiltzaileak bere gain hartzen ditu berak igorritakoek erakundeari eta hirugarrenei eragin diezazkieketen kalteak. Horregatik, posta elektronikoa erabilerak arlo profesionalera mugatua behar du.

2. Erabiltzaile bakoitzak, Nafarroako Parlamentuarekin lotura duen bitartean, posta elektronikoko helbide indibidual bat izanen du.

3. Posta elektronikora sartzeko nahitaezkoa izanen da adieraztea, 4. artikuluan 2. idatzatiaz zehaztu den moduan, nor zaren datu-sarearen domeinuan.

4. Nafarroako Parlamentuko posta elektronikoa sar daiteke bai sare korporatiboaren bidez, posta-bezero estandarrak erabiliz, bai sare horren kanpotik ere, webmail zerbitzua erabiliz, zeinak posta-kontuetan web bidez sartzeko modu seguru bat eskaintzen baitu, Zerbitzu Orokorrek zehaztutako segurtasun-murriztapenekin. Nafarroako Parlamentua ez da erabiltzaile-profilak sortutako informazioaren erantzule izanen (helbide-liburuak, kontaktuak, igorritako mezuek, fitxak, etab.).

5. Zerbitzu Orokorrek ezarritako segurtasun-neurriek posible egiten dute, enkriptatze bidez eta igorritako mezuen sinaduraren bidez, igorritakoaren sekretutasuna eta benetakotasuna ziurtatua egotea.

6. Posta elektronikoko kontu bakoitzak biltegiratzeko baliabide multzo mugatu bat du atxikia. Postontzien tamaina gehienez ere 3 GBkoa izanen da. Postontzia betetze-mugatik hurbil dagoenean, sistemak ohartarazpen bat igorriko dio erabiltzaileari. Behin muga gaindituta, posta-helbidera iristen diren mezuek atzera botako dira, harik eta postontzia hustu arte. Erantsitako fitxategien gehieneko tamaina 25 MBkoa da. Kontuan hartu behar da hartzaileen zerbitzariak ere mugak izan ditzaketela eta, muga horiek tarteko, gerta daitezkeela banaketa egin gabe gelditzea hartzailearen zerbitzariaren muga 25 MBtik beherakoa delako. Posta-mezu baten gehieneko hartzaile-kopurua 150koa da.

7. Erakundearen posta elektronikoa babestua dago birusen kontra eta posta elektronikoa erabileratzen katalogatutako jokabideen kontra –alegia, spam izenekoaren kontra–. Babes hori software berariazko baten bidez gauzatzen da, halako moduz non detektatzen baldin bada eduki desegokiko mezuek jaso direla, baimendu

gabeko kanalen bidezko edota baimendu gabeko hedapen masibo bidezko igorpenak egin direla, zerbitzua zailtzen edo ezintzen duten erasoak gertatu direla, birusak dituzten mezuak jaso direla, eta abar, erakundeak erabaki baitezake mezu horiek blokeatzea edo atzera botatzea, jatorri duten erakundea edozein dela ere.

8. Posta elektronikoko zerbitzuak ez du inongo kasutan ziurtatzen mezu baten banaketa, zirkunstantzia ugarirengatik geldi baitaiteke hartzailea mezua jaso gabe: komunikazio-lineen erorketa aurreikusigabeak, hartzailearen postontziaren biltegitratze-mugak, birusak direla-eta mezuak atzera botatzea, mezuaren tamaina handiegia, helbide gaizki idatziak, etab. Zerbitzarian, mezuen zirkulazioaren aztarnak gelditzen dira, halako moduz non sistemaren administratzaileak modua izanen baitu zerbitzuaren funtzionamendu onarentzat problemaren bat ekar dezaketen intzidentziak konpontzeko.

9. Posta elektronikoko informazioaren babesari dagokionez, 5. artikuluan ezarritako gidalerroei jarraituko zaie. Gomendatzen da behar-beharrez-

koak diren posta-artxiboak bakarrik biltegitratzea, horrelako datuek bolumen handia hartzen baitute.

10. Erabiltzaile batek erakundearekin harremana izateari uzten dionean, bere kontua desaktibatu egingen da, eta, beraz, baja emanen zaio esleitua duen posta-helbide elektronikoari, eta bere postontzia ezabatu egingen da zerbitzaritik.

11. Erabiltzaile batek, lan-beharrak hartarata, bere gailu pertsonal batean konfiguratu behar badu posta-kontu korporatiboa, Zerbitzu Orokorrei horretarako baimena eskatu beharko die. Baimen hori emanaz gero, Zerbitzu Orokorretako teknikariak izanen dira konfigurazio hori egiteko baimena izanen duten bakarrak, eta erabiltzaileak, gerora, ezin izanen du horretan aldaketarik egin.

8. artikulua. Arauen betetzea.

Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoren erabiltzaile guztiak daude behartuta arau hauek betetzera.

9. artikulua. Indarra hartzea.

Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan hartuko dute indarra.